

DURANGOKO HEZKUNTZA-ERRONKAK ELKARLANEAN GARATZEKO prozesua

UEK MAIATZEKO BATZARRA: akta

Eguna: 2025eko maiatzak 14
Ordua: 18:00-20:00
Lekua: Elkartegia
Bilera-modua: aurrez aurrekoa

DEITUTAKOAK	Etorritakoak	Etorri ez direnak
1. Asier Perugorria EAJ-PNV -hezkuntza zinegotzia	☒	☐
2. Nagore Lozano Zarandona (EH Bilduko zinegotzia)	☒	☐
3. Iker Txertudi (EAJ-PNVko zinegotzia)	☒	☐
4. Sheila Gonzalez (PSE-EEko zinegotzia)	☐	☒
5. Daniel Irazola Atxa- Maristak-Zuzendaria	☐	☒
6. Egoitz Mezo (Maristak-zuzendaritzako kidea)	☒	☐
7. Moises Urien Arrizabalaga- Ikasketa Burua-Jesuitak	☒	☐
8. Arantza Arrizabalaga-Landako Eskola zuzendaria	☐	☒
9. Jon Gorriño Vicandi- Durango BHI zuzendaria	☒	☐
10. Oihane Garcia- Nevers ikastetxea	☒	☐
11. Iker Gomez de Segura Solis- Ibaizabal ikastola- Zuzendaria	☒	☐
12. Urko Rodriguez-Kurutziaga-zuzendaria	☒	☐
13. Izaskun Duñabeitia Kintana- Zabalarra HLHI zuzendaria	☒	☐
14. Oier Urigoitia-San Antonio ikastetxea zuzendaria	☒	☐
15. Maider Olabarria- IGE Zabalarra	☒	☐
16. Jonatan Azcondo Padin-IGE Jesuitak	☐	☒
17. Jorge Varela Dorrio – Herriaren eskubidea zinegotzia	☒	☐
18. Nahia (Altxa Burua)	☒	☐
19. Natxo (Altxa Burua)	☒	☐
20. Idoia Aldekoa (Elhuyar)	☒	☐
21. Olaia Jimenez (HUHEZI-MU)	☒	☐
	17	4

1. Sarrera eta kokapena

Hezkuntza-zinegotziak bertaratuei harrera egin die ongi-etorria emanez eta saioa kokatu baino lehen, Iker Txertudi zinegotziak Kirol Egunaren ingurukoak azaldu ditu, ekainaren 7an izango dela Landako gunean azalduz.

Ondoren, ikusita Altxa Buruko ordezkariak etorri direla, elkar ezagutzeko erronda bat egin dugu. Altxa Burukoek beraiek dituzten helburuak zein diren gaineratu dituzte: edozein ikastetxe arnagune izatea, haratago joanda herritarren artean, oro har, gizartean, kontzientzia piztea; eta pantailen zentzuzko erabilera egitea. Horretarako, saretzea, talde indarrarekin dena errazagoa delako. Asmoa dute baita, herri-itun bat egiteko mugikorren erabileraren bueltan. Horrez gain, lege markoari begiratuta, beste herrialde batzuetako legediak kontuan hartuz (Galizia, esaterako), proposamenak egitea nahi dute.


Jarraian, saioan egingo duguna kokatu dugu:

1. Sarrera eta kokapena.
2. Ekintza-planaren garapena:
 - 2.1. Mugikorraren erabilera arduratsu eta jardunbide egokirako gutxienekoak: Altxa buruaren ekarpenak.
 - 2.2. Harrera-planaren lanketa eta familien ahotsak.
3. Balorazioa eta itxiera

2. Ekintza-planaren garapena:

2.1. Mugikorraren erabilera arduratsu eta jardunbide egokirako gutxienekoak: Altxa buruaren ekarpenak.


Mugikorraren erabilera arduratsu eta jardunbide egokirako gutxienekoak dokumentua UEKean onartu dagoela azaldu dugu, baina Altxa Burukoek ekarpen batzuk egin dizkiotela dokumentuari eta ekarpen horiek zein diren azaltzeko egokiena beraiek direla adierazi dugu eta helburu horrekin etorri direla gaurko saiora. Hori horrela, egindako ekarpenak zein diren aztertuko dira eta honako erabakiak hartuko dira:



IKASLEAK:

1. Ekarpina:
 - Aipatu da gaia lantzen jardun ginenean, DBHn ematen zen testuingurua LHaren ezberdina dela, ikasleak jolasgaraian kanpora ateratzen direlako eta eskola eremutik kanpo mugikorrarekin zer egiten duten kontrolatzea zaila delako. Ikastetxe batzuetan DBHn eskola eremuan debekatuta dago. Hori horrela, adostu

- da bideragarriagoa dela jartzea: eskola orduetan baina beti ere eskola esparruan daudenean.
- Batxilergoan eta Lanbide Heziketan, ikasgeletan mugikorrak itzali eta gorde egingo dira. Atsedendian edo patioan mugikorraren erabilera baimendua izango dela jartzea proposatzen da, erabilera arduratsua egin daitekeela esan ordez.
2. Ekarpena ontzat eman da. Aldaketa datza norbaitek deitu behar badizu, egoera horrek mugikorra eskuetan izateko baimena eman beharrean, ikasle eta familiei adieraziko diegula eskolara deitu dezaketela egoera horietan.
 3. Ekarpena: ez da aldaketarik egitea ikusi. Hasierako formulazioa mantentzen da:
 - Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren hezkuntzan eskola-jarduera edo hezkuntza helburuak garatzeko orduan mugikorra ez da erdigunean jarriko, kasu bakan edo puntualetan erabiliko da.
 - Batxilergoan eta Lanbide Heziketan eskola-jarduera edo hezkuntza helburuak garatzeko beharrezkoa dela baloratzen denean, mugikorra ikasgelan edo ikas jardueran erabiliko da.



7

IRAKASLEAK:

4. Ekarpena: ontzat eman da, berez, praktika bera ere hori dela argudiatuz, mugikorra hezkuntza-helburuak lantzeko ez ohiko momentutan erabiltzea.
5. Ekarpena: araua dagoen bezala uztea adostu da, parentesiak salbuespena adierazten laguntzen duelako.
6. Ekarpena: "lehenetsiko da" izan beharrean, "erabiliko da" jartzea adostu da.

FAMILIAK

Familiaik gaian inplikaturik ditugu eta sentsibilizazio-lana egingo dugu, hainbat norabideetan:

- Adingabeen familiei komunikaturik diegu gai honekin eskolaren norabidea zein den
- Ikasleek mugikorra eskolara ez ekartzeko gomendioa lutzatuko diegu familiei
- Familia mugikorraren erabilera desagokiak eragin ditzakeen arriskuen inguruan sentsibilizaturik ditugu
- Beraien seme-alabak mugikorraren erabilera desagokiak eginerik gero, hartuko diren neurri erregulatzaileen inguruan informatuko zaie eta konplizitatea lantzen saiatuko gara, modu bateratuan eta koherentean jarduteak duen garrantzia azpimarratuz.

7. Familiei, ahal den neurrian, ikastetxeen telefono mugikorrak ez erabiltzeko eskatuko diegu.

FAMILIAS

Implicaremos a las familias en el problema y realizaremos un trabajo de sensibilización en varias direcciones:

- Comunicaremos a las familias de los menores la orientación del colegio sobre este asunto.
- Recomendaremos a las familias que los estudiantes no traigan sus teléfonos celulares a la escuela.
- Concienciaremos a las familias sobre los riesgos que puede suponer un uso inadecuado del móvil.
- Si sus hijos hacen un uso inapropiado del móvil, se les informará de las medidas reguladoras que se adoptarán y se tratará de cultivar la complicidad, haciendo hincapié en la importancia de actuar de forma unificada y coherente.
- Pediremos a las familias que en la medida de lo posible no utilicen los teléfonos móviles en los centros escolares.

7. Ekarpena: ontzat eman da familiei ahal dela ikastetxe eremuan mugikorra ez erabiltzeko eskatzearekin.

Hartutako erabakien arabera, dokumentua egokitzeko geratu da talde teknikoa. Altxa Burukoek ikastetxea mugikorrak gabeko arnagune izateko kartelak dituztela aipatu dituzte eta ikastetxe batzuk interesa agertu dute kartelak eskuratzeko; Udalaren bitartez koordinatzeko geratu dira. Eskerrak emanez agurtu gara Altxa Buruko ordezkariak.

2.2. Harrera-planaren lanketa eta familien ahotsak.

Gogoratu dugu aurreko saioetan egin duguna gai honen inguruan:

- Otsaileko saioan heldu genion gaiari eta ikastetxeok betetako inkestaren emaitzen sintesia aurkeztu genuen bloke ezberdinetan: ESANAHIA; HELBURU-FUNTZIOAK, URRATSAK-ARDURAK, FAMILIA-EGOERAK EZAGUTZEA, APARTEKO GAIK EDO GAI EMERGENTEAK. Sintesitik abiatuta, eremu bakoitzeko ondorioak eta oinarri komunak landu ziren taldeka

ESANAHIA:	• Inklusioa vs. Integrazioa, zein da HParen esanahia? • Harrera eta herritartzea, zein? • Adinaren arabera, zer da aldatu beharrekoa? • Hizkuntzaren arabera, zein egokitzapen behar dira? Ikasmateria egokitzeko beharra dago?
LARRIALDI-EGOERAK:	• Larrialdi-egoeretan, erantzuna: • Zer egin daiteke? Norra jo dezakegu? Argitzeko beharra. • Zer da larrialdi egoera bat ikastetxeendako? Eta GG.ZZendako? • Noren laguntza behar da? Talde intersektoriale sortu behar da? • Erantzuna sistematizatu, dauden egoerak identifikatu, kasuan kasu sistematizatu eta arautu egoera jakinei eman beharreko erantzunak nolakoak diren zehazteko.
FAMILIA-EGOERAK:	• Harrera-planaren ikuspegia zein izan behar da? paternalismotik aldentzeko, nola egin? • Nola integratu familien ahotsak HPen? • Nola ezagutu familien beharrik?
HARRERA-PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUATZIOA	• Harrera-planen jarraipena eta ebaluazioa, nola heldu gaiari?
UDALA ETA IKASTETXEEN ARTEKO KOORDINATZIOA:	• Koordinazio urratsak abiatzeko, zeintzuk dira baldintzak? • Talde intersektoriale, zeinek osatuko luke? Zein funtzio izango luke? • Zein sinergia behar dira?
BALIABIDEAK	• Nola egin balibideen kudeaketa?

EREMUA
ESANAHIA
Durangora datorren orok herritartzen lagunduko dion harrera abegikor bat jasotzen laguntzen du?
HELBURU-FUNTZIOA
Helburuak eta funtzioak argiak dira? Herritartzen laguntzen dute?
URRATSAK
Ematen diren urratsak helburuari erantzuten diote? Urratsik gehitu edo aldatu beharko litzateke?
FAMILIA-EGOERA EZAGUTZEA
Familia-egoeren informazioa eskuratzen da eta beharrei erantzuten die? Agertzen diren zailtasunen erantzunik badago?
APARTEKO AIPAMENAK ETA
GAI EMERGENTEAK
Nola ikusten duzue Durangalderako harrera protokolo bat eratzeko ideia? Eta ikastetxeen eta Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazio egitura bat eratzearen ideia? (beharra, egingarritasuna...)
BESTERIK?

- Martxoko saioan, ondorioetan arreta jarrita osatze-lan bat egin zen, lanketatik ateratako heldulekuei begira. Osatze-lanaren indar ideiak ekarri ditugu:



Azaldutako ondorio eta heldulekuei, zerbait gehituko zenioke?

Beharrak eta harrera-motak:

- Harrera-mota ezberdinak: akademikoa, kulturala, soziala... arlo bakoitzean behar jakinak eta harrera-mota ezberdinak behar horiei erantzun behar.
- Beharizana bi ikuspegietatik landu beharra: gure beharrak eta beraien beharrak.
- Aldagaien egoeraren arabera (adina, familiaren egoera) harrera egiteko modua eta honen emaitza desberdina

Harrera eta herritartasuna

- Ikastetxeak herritartzen duten edo behar duten galdera mahai gainean.
- Era berean, eskolak herrian harrera-gaietan dabilzan elkarte edo sareekin lan egitearen ideia ere mahai gainean.

Harrera-unea eta prozesua era berean

- Harreraren iraupena zehaztu beharra, fokua jartzea komeni da denbora eta espazio zehatz batean, fokua zabalegia geratzen delako bestela; eta famili asko nomadak direla kontuan hartuta.
- Hasierako urratsa zaintza afektiboa, harrera afektiboa. Ikasle bakoitzak beharrak eta zailtasunak ezagutzeko denbora behar da.

- Lanketatik harago, lehentasun ariketa bat egin zen ere, harrera-planen hobekuntzak zein bidetik joan behar ziren zehazteko, emaitza hau izan zelarik:



Aurreko saioko lanketa: MARTXOA

Lehentasunak ezarriko ditugu edo badago heldulekuren bat beste guztietan eragina izan dezakeena?

LARRIALDI-EGOERAK
FAMILIA EGOERAK
GAI EMERGENTEAK

Familien ahotsak jasotzea
Galdetegia diseinatu eta
ahotsak jaso dira



16

Saioan atera zena kontuan hartuz, hemendik aurreragoko bidean bi eremutan lan egitea proposatu dugu, harrera-planen dagokionez:

Harrera-unea

Familien egoera eta beharrak
Planen jarraipena eta ebaluazioa

- Beharrei nola erantzuten zaien jarraipena egin (galdetegiaren emaitzak aztertu)
- Harrera-planen jarraipena egiteko eredu bateratua lantzea, irakurketa bateratua egiteko. Adib:
 - Harrera jaso duten familia kop.
 - Familien jatorria eta hizkuntza
 - Lehen egunetako sentipenak
 - Lagungarri izan diren baliabideak
 - Hobetzekoak/proposamenak

Larrialdi-egoerak

Egoerei erantzunak emateko prozedurak
Koordinazioa

- Larrialdia zer da? zein dira egoerak?
- Dauden prozedurak ezagutzen dira?
- Zein dira sortzen diren zalantzak?
- Zer da argitu beharrekoa?

Bi gaiak aurkeztuta, plenaria zabaldu da, honako galderak erantzuteko eskatuz:

Laneko eremuak edo langaien planteamendua:

- Laneko eremuak edo langaien planteamendua egokia da?
- baliagarria da?
- Zerbait egokitu edo osatuko zenukete?

Larrialdiko egoerak:

- GGZZetako prozedurak ezagutzen dira?
- Horien gainean sortzen dira zalantzak?
- Zer da argitu beharrekoa?

Larrialdiko egoerekin lotuta, batik bat, argitu nahi izan dugu Gizarte Zerbitzuek ikasturte honetan beraiekin egindako bilera gogoan dute, eta tartean hor aurkeztu zen prozedura edo aktuaziorako jarraibideak. Oro har, erantzuna izan da, bai gogoan dutela bilera eta prozedura ezagutzen dutela, baina zalantza agertu dute larrialdi-egoerei erantzuten ote dien. Hori abiapuntu hartuta, zenbait egoera eta kasu azaldu dira.

Azpinarra jarri da, larrialdiko egoera bada, berehalako erantzuna behar duela. Eta hori ez dela gertatzen. Interbentzioei dagokionez, hitzorduak hilabetera-edo ematen dituzte; lehenago izan behar direla azpinarratu dute. Benetan zer da larrialdia? Noiz bihurtzen da zerbait larri?

Aipatu da ikastetxeek geroz eta arazo gehiago detektatzen dituztela eta adin txikikoak direla biktimak: batetik, testuinguru biolentoak bizi dituzten haurren mina goxatzeko baliabiderik ez

dutela ikastetxeek azpimarratu da, ez dagoela psikologo figurarik ikastetxeetan; bestetik, gero eta suizidio protokolo gehiago zabaldu direla, gero eta adinez txikiagoak direneta, baina ez dela kasuen jarraipenik egiten. Komunikazioak arinagoa izan behar du. Ikastetxeen sentipena da bakarrik daudela honetan eta kasu batzuetan beldurra ere sentitu dute. Ikastetxeak tesitura konplexuetan topatzen dira maiz eta kasu horietan, nork salatu behar du ikastetxeak edo GGZZ?. 16 urtetik gorako ikasle adingabeak kale gorrian, etxerik gabe...norengana jo behar dugu, GGZZengana edo migrazio teknikariarengana?

Babes-larrialdietako kasuetan, Aldundiko emergentzia sarea dagoela esan da. Gero eta arazo gehiago daude eta horrek ikastetxeentzako ardura gehiago dakar. Ez dute detekzioaren ondoren feedbackik jasotzen. Kasuen jarraipena egiteko zailtasuna dute, eta bilerak antolatzea lortzen bada, premiek bultzatutakoa da.

Oro har, aipatu da, GGZZek badakizkitela orain aipatutako ezintasunak, ezagunak direla beraientzako alegia.

Egoerari erantzuteko baliabideak behar dira batetik, eta bestetik, antolamendua/koordinazioa hobetu. Zenbait ideia jarri dira mahaigainean:

- Psikobonoez galdetu da, ea zenbat urtera artekoak diren. 14 urtetik gorakoentzat dira eta proposamena luzatu da adina jaisteko, LHn ere egoerak eta kasuak agertzen direlako eta zenbat eta arinago esku hartu hobe delako. Aipatu da beste udalerri batzuetan eskolak psikologoak dituztela, udalak diruz lagunduta. Udalari egin omen zaio eskaera ikastetxe batetik baina erantzuna izan da Durangon ikastetxe asko daudela eta ez dela bideragarria. Berrito mahai gainean jarri da gaia, aztertzeke gaia izan daitekeela esanez.
- Osasun Zerbitzua da beste hanka bat. Aipatu da beste udalerri batzuetan Osasun Mahaiak sortzen ari direla, gai honi modu bateratuan eta koordinatuan erantzuteko. Azpimarra jarri da horrelako Mahai bat sortzeak izan dezakeen garrantzia, eta nahiz eta beste egitura bat gehiago izan, gaiari espezifikotasunez eta integraltasunez erantzuteko balioko lukeela aipatu da. Ikastetxe batek aipatu du beraiek izan zutela martxan, ikastetxe mailan, talde intersektoriala, non osakidetzako ordezkariak, Berritzeguneak, GGZZ ordezkariak eta ikastetxeak berak parte hartu zuten. Aipatu da, zailtasunetako bat izan zela Datuen Babeserako Legea, isilpekotasuna mantendu behar zela eta esku-hartzeak modu integralean gauzatzeko hori muga izan zela eta familiari akonpainamendua egitea ere bai. Osasun zerbitzuetan ere ikusten da UPlak (Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Unitatea) indartu beharra dagoela.
- Kasuen detekziorako gaitasun eta tresnak jasotzeko formakuntza egokia jasotzea gakoa izan daitekeela aipatu da. Makina bat noiz hasten den matxuratzen badakigu, ateratzen duen zaratatik, baina pertsonak noiz hasten diren ondoez hori sentitzen, nola detektatu? Irakasleak detekzio horretan klabeak izan daitezkeela ikusita, hor arreta jarri beharra azpimarratu da. Proposamena luzatu da irakasle guztiei formakuntza eskaintzea Mankomunitatetik.

- Aurreko ideiak erantsi zaio, herri mailan ere antolatu daitezkeela formakuntza-ekintza desberdinak, formazio-beharrak detektatu eta gero denon artean bideratu. Aipatu da larrialdi-egoerei erantzun zuzena emateko plana landu daitezkeela eta ikastetxeen artean edo herri-mailan (osasun zerbitzuekin eta GGZZekin batera) formakuntza elkarrekin antolatzea.
- Formazioarekin lotuta, erreferentzia egin zaio Markinan antolatutako saio bateri, gazteen osasun mentalekin lotutakoa, eta horrelako ekimenek duten garrantzia azpimarratu da, gaiari tokia egin eta guztion artean gogoeta eta ekintzak bideratzeko espazioak sortzeko.



Familien ahotsak.

Ikastetxeetan harrera jaso duten familien ahotsak jasotzeko galdetegiaren emaitzak eman ditugu jarraian (mezuari erantsita bidaltzen ditugu emaitzak). Ondoren, talde txikietan lan egiteko dinamika bat genuen aurreikusita, baina denbora faltagatik, plenarian luzatu ditugu galdera hauek:

- o Entzundakotik, zein ondorio nagusi ateratzen duzue?
- o Aurrera begira kontuan hartu beharreko alderdirik atzeman duzue?
- o Harrera-planen jarraipena egiteko baliagarriak dira familien ahotsa jasotzeko gidoian jasotako galderak? Jarraipena egiteko beste alderdi/galderaren bat gehituko zenukete?

Honako ideiak jaso dira:

- Argazkian nahiko ondo ateratzen gara, beharrari erantzuten zaio.
- Euskararekin dute agian traba gehien; agertzen da euskararen gaia baina ez gehiegi ere.
- Komunikazioaren gaiak harritu nau.
- Aipatzen diren gai batzuk (etxebizitza, kontziliazioa...) ikastetxeari dagozkion eremuetatik gaindikoak dira, ez dagokio.
- Emaitzak ikusita arreta jarri beharra familia horiek hartzen ditugunean, ikastetxean beraien parte hartzea nola gauzatzen den, eta horretarako, guraso elkarteak inplikatu beharra harrera-planean bertan. Gure harrera-planak aspektu kurrikularra, formazioa jasotzen ditu...baina ez parte-hartzea nola gauzatzen den. Horretarako, guraso elkartearekin bilera bat integratzea harrera-planean etxerako lan gisa.

Taldeak ez dio heldu harrera-planen jarraipenari begira, galdetegian ageri diren aldagai horiek mantendu edo osatzearen alderdiari; denbora agortu zaigunez, bere horretan utzi dugu gaia.

3. Balorazioa eta itxiera

Hurrengo saioa noiz izango den adierazi dugu: ekainaren 11n, 18:00etan, Elkartegian.

Saioa bukatzeko, saioa baloratu dugu erronda bat eginez:


- Nekatuta etorri naiz baina ideia batzuekin noa post-itetan apuntatuta.
- Begirada jartzen dugu besteengan, eta gu? Mugikorraren auziarekin helduak nola jokutzen dugun; harrera nori zuzentzen zaion eta ze deskonexio dagoen, zaurgarritasunetik ikusten gaituztelako arrakastatsu, eta esango dute, ze kontatzen didazu zuk zure pribilegioetatik? Prozesu horiek berdinetik berdinerara egiteko beharra. Osasun mentalari dagokionez, ikasleen egoera eta baita irakasleena, guk ere indarra behar dugulako horri eusteko, irakasleok ere erori gaitzkeelako. Zaintzaileen zaintzaz ez da hitz egiten.
- Saio emankorra, hariari ez diogu guztiz ebatu, zabaldu eta zabaldu egiten dugu, eta ezin itxi.
- Baliagarria, gure burua zaintzeko. Zaintzaileen zaintza kosta egiten da.
- Kosta egiten zait etortzea, baina gero terapia bat bezala da. Saioak pikoak izan ditu, geldoagoa hasieran eta bukaera, arinago.
- Osasun Mahaia egitearena ondo, baina nola izango zarete gai hori bideratzeko Olaia/Idoia joaten direnean?
*galdera honi erantzun zaio esanez, Udalak duela gaiaren ardura eta lidergoa.
- Filosofatu egiten dugu asko eta ea gauza eraginkorrak bideratzen ditugun.
- Zaintzaileen zaintzan arreta. Baliabide faltagatik, tutore asko oso pasauta daude, ez dagoelako interbentzio berehalakorik.
- Gustura egon gara.

Balorazioaz gain, Fray Juan de Zumarraga Institutuko zuzendariak (Jon) eta San Antonioko zuzendariak (Oier), zuzendaritza kargua ikasturte honetan uzten dutela adierazi digute eta hurrengo saiora erreleboa hartuko diotenarekin etorriko direla.

Saioaren balorazioari dagokionez, 5 partaidek erantzun dute ebaluazio-galdetegia. Hona hemen erantzunen laburpena:


1. Sexua

5 erantzun




2. Bileraren ordutegia eta iraupena egokiak izan dira

5 erantzun




3. Bilera lekua egokia izan da

5 erantzun




4. Lanerako giroa atsegina izan da

5 erantzun




5. Gaiak lantzeko modua gustatu zait

5 erantzun




6. Parte-hartzea zabala eta anitza izan da

5 erantzun




7. Bilera aurretik jasotako informazioa egokia izan da

5 erantzun




8. Ekarpen interesgarriak egin dira

5 erantzun



9. Bileran izandako parte-hartzeak asetu nau

5 erantzun



INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
- Ordezkaritza zabala - Enpresaren informazioaren kudeaketa - Talde kohesioa, partaideen konpromisoa, saioa garatzeko egindako aurretiko lana eta ekarritako gaiak garatzeko gidariek duten maisutasuna. - Partaideen inplikazio maila - Giro atsegina	- Eskola-kontseiluari dagozkion eskumenen barruan ekintzak gauzatzea eta eskumen horietatik kanpokoak direnak dagokionari bideratzea (azken hau, Udalaren bitartez). - Udalak dituen eskumen eta aukerak zehaztea falta da - Denboraren kudeaketa. Denbora "gehiegi" erabili genuenez saioaren hasieran, bukatu ahal izateko presaka aritu giñenaren sentsazioarekin atera nintzen. - Momentu honetan gaiari zelan heldu ez dut argi - Bileren maiztasuna urritzea